

Esp. Kod./Cód. Expte.: 2021MS010001

Erref./Ref.: MC

Txosten zbkia.: 2021.010

TXOSTENA

Gaia: EKINTZAILTZAREN SUSTAPENERAKO ETA ENPRESA LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO DIRULAGUNTZAK 2021 – AURREKONTU ALDAKETA PROPOSAMENA

Udalbatzak 2020ko abenduaren 17an 2021eko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena egin eta 60.000,00 euroko diru-partida onartu zuen lehia bidezko ekintzailtzaren sustapenerako eta enpresa lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak emateko. 60.000,00 euro hauek Hondarribia Abian programako 1 0115.480.01.433.20 2021 (8993) partidand daude.

Ikusirik, diru-laguntza hauetan bi lerro bereizten direla, bata Hondarribian ekintzailtzaren sustapena eta bestea txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen saltokien modernizazioa. Ikusirik, aurren lehen lerroaren baliabide ekonomikoak 25.000,00 eurokoak izatea proposatu dela eta bigarren lerroarenak 35.000,00 eurokoak, eta kontuan harturik, bigarren lerro honetan diruz-lagundu daitezkeen gastuak inbertsio gastuak direla,

Turismo eta merkataritza teknikari honek ondorengoa proposatzen du:

Bigarren lerroko txikizkako merkataritzaren eta zerbitzuen saltokien modernizazioari dagozkion 35.000,00 euroak ordaintzeko 4. Kapituluko dirua erabili beharrean egokiagoa litzatekeela 7. Kapituluko dirua erabiltzea. Egoera honen berri Kontuhartzailtzari ematen zaio dagokiona egin dezan.

Hau da nire txosten-poposamena eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen menpe jartzen dudana.

Elektronikoki sinatutako dokumentua
Turismo eta merkataritza teknikaria